


Sua hona!

ABERASTASUNA aireratzen du gurbitzak (*Arbutus unedo*). Lur fresko eta sakonak behar ditu oparo hazteko. Berak ere ongi zaintzen du elikatzen duen lurra eta hosto eta azal-printzezko ongari bikainaz jantzen du bueltan; hartu eta eman, trukean bizi. Azpian gabiltzan gu ere ederki ontzen gaitu: perretxiko, zura, fruitu gozo eta “moxkor” liluratzaila. Asturiarren “borrachín” deitzen diote arbolari.

San Martin, Zakilixuten txerri eta zerriena den hamaikagarren hilabetearen hamaikagarren egunez, Baliarraingo erretoretzeko hormaren kontra dagoen gurbitzak elizako ordulari parearen arteko aldean ba ote du zer esanik? 1781. urteko eguzki ordulariak ez du gezurrik esaten, eguzkiaren hamaikak inguru dira, guretzat eguerdiko hamabiak. Baina ordulari mekaniko “modernoak” laurak eta ez dakit zenbat dela dio. Gurbitzaren moxkorrari egutziko diogu aldea...

Ordulari horien aldameneko kanpaiek inoiz salatuko zuten suarekin ere badu, bada, gurbitzak halako hartu-eman xelebrea. Suak pasatzen duen edo erretzen duen mendian gurbitzak da indartu eta berritzen lehenetakoa, suaren kalteak jasaten onenetakoa, alegia. Ipurdi aldean eta lurpean ezkatuta dituen kimu-begiei eskerrak. Bakoitzak bere biziberritze estrategia du, baina suzale koadrila berekoak dira artelatza (*Quercus suber*), txilarra (*Erica* sp.), abaritzza (*Quercus coccifera*), palmondo nanoa (*Chamaerops humilis*), xiristola (*Genista tinctoria*), eta abar. Era berean, bere egurra sutarako ona bada, ikatzetarako onenetakoa da, aparta! Bere ipurdiak, orpoak, anduiak eta sustraiak estimu handian zituzten su-egileek. Berarekin egindako burdina Europan adina gurtzen zuten gurbitzikatx olariek burdinoletan. Bere garrak eta txingarrak harrapatzen duten temperatura ez duzu beste egurrekin nola hala erdietsiko. Labea behar bezala berotu eta ogia



JAKOBA ERREKONDO

Baliarraingo erretoretzeko erloju pare.

ongi erre nahi zuenak begikoa zuen gurbitz egurra. Egur hori zuretara ere aintzat hartzekoa zen: tornuan lantzeko aproposa: gogorra, trinkoa eta astuna, baina fina eta gorrien artean dotoreenetakoa.

Azienda guztiak gustuko du, eta kimuak janez bere lepoa zentaberaino luza dezakeen ederki adierazten du hozkadakako inausketak. Bazka ere ona, nonbait. Gurbitz handirik ez duzu berehalakoan topatuko, eta gurbitziena esan gabe doa, jakina! ■



JAKOBA ERREKONDO



Deban malkotu

UDAZKENEROKO erretolika! Esango du bateren batek, eta ez naiz harritzen. Gai honekin nazkanazka eginda daukadan bat baino gehiago izango da bazterretan. Krimen baten lekuko izan naiz Deban. Deban eta beste makina bat tokitan, baina Debakoak min gehiago eman dit... Begiak malkotu zaizkit. Erriro bazterrean, Deba ibaia itsasoratzen den paradisu horretan, hor ari ziren bi lagun hostoz jantzita zeuden platanok (*Platanus x hispanica*) inausten. Zuhaitzak negua igartzeko jaso behar dituen erreserbak hostoetatik hartu gabe dituenen, alegia. Zauri bizia negu osorako. Ez dakit ezer, baina seguru asko kaleetan orbelak eragozpenak sortzen dituenaren aitzakia izango da Udaleko arduradun teknikoren edo politikoren batek inauseteko emandako aginduaren arrazoia. Gure ondare naturala, kaleetako zuhaitzen ondarea etengabe jo eta suntsitzen ari gara. Noiz arte izango dira ondare publikoaren aurkako krimen hauen ardurak argitu gabe? Ba al da inor gure ondare honen babesaren ardura hartzeko prest? “ZUHaitz gara” edo antzeko izeneko elkarte bati ekingo al diogu? ■